




Askatzen den gerrikoa


Automobilean istripua denean segurtasun-gerrikoa jantzita izatea abantaila handia da eta horrela bizitza ugari salbatu dela ez dago ukatzerik. Lehenengo talkan pertsona babestu ondoren ordea, gerrikoak preso edukitzen du eta korderik ez duelako edo zaurituta dagoelako askatu ezinik bertan gera daiteke. Automobilak su hartu baldin badu, bertatik ahalik eta azkarren irten eta urrutira joatea komeni da. Hori guztia kontuan hartuta René Rochon asmatzaile frantsesak gerrikoa automatikoki askatzeko sistema prestatu du. Talkako unean mekanismo bat aktibatu egiten da eta tenporizadore batek segundo gutxi barru gerrikoa irekita uzten du. Mekanismoa erregulagarria da, pertsonaren pisuaren arabera. Sistema mekanikoa du eta gaur egungo gerrikoetan muntatzen da.

René Rochon asmatzaile frantsesak gerrikoa automatikoki askatzeko sistema prestatu du. Mekanismoa pertsonaren pisuaren arabera erregula daiteke.

Artxibokoa



Artxibokoa



Frantziako Mosa lurraldeko EMC 2 kooperatiban zerealen lastotik paper-orea aterako dute.

Lastotik papera

Frantziako Mosa lurraldeko EMC 2 kooperatiba lau urtez aritu da ikeritzen zerealen lastotik paper-orea atera asmoz. Ikerketak SAF-ISIS sozietateak Landetako Soustons-en duen laborategian egin dira, nahiz eta hemen paper-orea pinu-enborretatik ater-

ratzen den. Mosa lurraldean erabiliko duten prozeduran, oso presio handiko lurrinezko labea erabiliko dute. Lastoa horrela zuntzetan banatu egiten da eta hortik ateratako paper-oreak ezaugarri mekaniko bikainak ditu. Paper-orea egiteko fabrikaren ondoan, kartoia egiteko beste bat egin nahi dute.

Argazki-kamera digital berriak

Ricoh DC-2 argazki-kamera digital berriak lehiakideak hautsiko dituela dirudi. Izan ere, teleagintea, argazkiak segidan ateratzeko eta soinua

erregistratzeko aukera, egoera askotarako flasha, flash-memoria eta PCMCIA memoria ditu. Eskatuz gero kamera pantailaz hornitua ere zerbitzen dute. 190.000 pta. inguru (7.500 libera) balio du. Sony etxeak ere bere DSF-FI kamera txikia plazaratu du. Datuak kablerik gabe edozein periferikotara bidalitzake bere infragorriko interfazeari esker. Laster kamera honen



Ricoh etxearen DC-2 argazki-kamera digital berriak (goikoa) eta Sony-ren DSF-FI kamera txikiak (behekoa), kameren bide berrien nondik norakoa erakusten dute.

osagarri sublimazio termikoz funtzionatzen duen inprimagailu berezia merkaturatzekoak dira. Kamerak 150.000 pta. (6.000 libera) balio du.

